

HERRI-NARRATIBAGINTZA ETA LITERATURA

Donostia, 1992-III-27

Bernardo Atxaga

Hartu nire gaurko ponentziaren gaia gogoan, eta aspaldiko enperadore batek hartutako erabakia etortzen zait burura. Antza denez, ibai zabal eta bizkor batek bi zaldi sakratu ohostu zizkion, eta ohostu, noski, ibaiek ohi duten moduan, zaldien igeria hautsi eta bere baitan itoz; eta orduan berak —Jerjes zela esaten digu Herodotok—, ibaia kastigatzea erabaki omen zuen. Ibai hura ez zen aurrerantzean zabal, bizkor eta arriskutsu izango, zeren berak kenduko baitzizkion indarrak, berak bihurtuko baitzuen erreka koxkor. Nola? —ba, bere soldaduei ehunka erreten eginera— ziz, eta ur haundienak erreten haietara bideratuz. Pentsatu eta egin, handik urtebetera ibaia erdi hustua zegoen, eta, Herodoto berak dioen bezala, “ez zion inori beldurrik ematen, ezta umea besoetan hartuta zihoazen andreei ere”.

Literatura ere ibai bizkor eta zabala da, noski, edo halatsu ikus dezakegu behinik behin gure irudimenaren begiekin: poeta asiriarrak eta greziarren kantuekin hasi, eta —geroz gizenago, geroz eta liburu gehiago hartuz—, gure egunok arte iristen den ibaia bezala. Eta, ibaia den partez, agian joka dezakegu berarekin Jerjes enperadoreak zaldiak ito zizkion harekin bezala; har ditzakegu bere urak eta ehunka erretenetan banatu. Eta banatu, gainera —irudimenak enperadore t’erdi balio baitu-korronterik korronte, berez nahasturik datorrena erreten desberdinetara bereiziz. Hala, ehunka erreten horien artean, *Biblia* izeneko sakona eta urtsua edukiko genuke, eta honen aldamenean, bere pareko, *Homero* deitutakoa; haruntzago, berriz, *Mila gau eta gau bat gehiago* ospetsua, eta oraindik haruntzago —ekialderago—, Cathay bataiatu genezakeena: korronte nagusiak den denak, literaturaren ibaia luzaro hornitu duten erreten galantak. Idatzi ote da inoiz Homero edota Bibliaren eraginik ez duen libururik? Seguru asko, ez. Auerbach eta beste hainbatek erakutsi bezala, bi iturri horiek sortu dituzte literaturaren korronte zabalduenak.

Ez baitira irudimenaren begiak haunditasunari begiratzeko bakarrik, ohar gaitezen orain beste erreten ttikiago batzuetaz. Eta hor non, modu

horretan, psikoanalisia eta kazetaritza izeneko pare bat ikusten ditugun. Eta gero, teatro edo antzerki esaten zaiona. Eta geroago, azkenez —bere bila genbiltzan—, herri-literatura deitzen den gure gaurko erreten hori.

Herri-literatura ez da behar bada oso erreten zehatz eta ondo mugatua. Esan *Iliada*, eta denok dakigu zeri buruz ari garen. Esan *San Lukasen Ebanjelioa*, eta berdin. Esan ordea herri-literatura edo, hestua-go, herri-narratibagintza, eta dudak sortzen zaizkigu: Arratibel jaunak bere aitari jasotako Marixorren ipuinak, bertan egon behar al du? Eta Aita Zavalak bere magnetofoniar grabatutako Pello Errotaren bizitzak? Eta Uztapidek idatzitako *Sasoia joanda gero* delakoak?

Egia esan, ez naiz arazoarekin larritzen. Munduan beste askok bezala, nik ere, herri-literatura definitzeko orduan, Nolatasunari begiratzen diot, eta bere erretenera bideratzen dut ahoz sortutako guztia: arestian aipatutako *Marixor* eta *Pello Errotaren bizitza* narrazioak, kasu. Badakit bata ipuin harrigarria dela, eta bestea ez; eta badakit *Marixor* ipuin harrigarriaren atzean autore jakinik ez dagoela, eta *Pello Errotaren bizitza* memoria ttikien atzean, berriz, ia ehun urte bizi izan zen Mikaela Elice-gui hura dagoela, Asteasuko umeez Mikela Zintzarri bezala ezagutzen zuten andre berbera; baina, aurreratu bezala, nik Nolatasunari begiratzen diot bereziki, eta biak ahoz sortu zirenez gero, ba, biak erretenera. Aitzitik, herri-narratibagintzatik kanpo uzten ditut *Sasoia joanda gero* eta, oro har, idatziz sortu diren liburu guztiak. Bestela, nire ustez, oso lur labainetan sartuko ginatke, literatura-azterketa serioaren hiztegitik ateraz, eta soilik propaganda politikorako balio duen erromantizismo luzundu batenean sartuz. Izan ere, nondik Uztapideren liburuak herri, eta nireak, kasu, ez herri? Ez al gara ba, biok, gizarte berdinean sortutako pertsonak? Ez al dira ba, haren liburuak eta nireak modu berdinean eginak izan? Jakina, litekena da haren liburuak —bertsolaria zelako eta beste arrazoi batzuegatik—, nireak baino aho kutsu gehiago izatea, antza gehiago edukitzea herri-literaturarekin; baina hortik aurrera, jai.

Seguru garai bateko erromantikoez —beraien joera aristokratikoa zela eta—, beste era batean arertu izango luketela arazoa, Uztapide herri maitagarri baina xehe baten bardotzat hartuz eta bere liburuak, berriz, herriek izaten duten jakintza xehe baina maitagarriaren adibidetzat gorai-patuz. Baina joera hori, XIXgarren mendean konprenitzekoa zena, ezin da inondik ere ametitu. Alde batera, oso diskriminatzailea da, eta —itxurak itxura—, pertsona edo jende bati buruz eduki daitekeen mespreziorik gaiztoena du berarekin. Izan ere, zer da xehe izatea? Kultura gabe, psikologia ximplekoa, inuzentzia barregarrikoa eta ez dakit zenbat gutxitasun gehiagoren jabe izatea? Eta orduan, zer da erromantikoez zenbait jenderi bidali nahi dion mezua? Komedia batean gizonezkoak andreari esaten zion tuntuna zarelako maite zaitut delako hura? Humore kontua dirudi, baina ez du batere graziazirik. Norbaitek pertsona bat edo jende bat

xehetzat baldin badauka, ez du errespetatzen, eta ez badu errespetatzen, ez du maitatzen. Edo maitatzen du, baina zakurrak eta beste zenbait animalia maitatzen diren bezala. Gauza bera gertatzen da, pentsatzen jarrita, enbarazu pittin bat egin duten poetak hiltzen direnean. Gizarteak —Gabriel Celayarekin bezala— lintxatu egiten du itxuraz laudoriozkoak diren artikulu eta abarrekin. Baina zer esaten dute benetan artikuluok? Zer esan zuten Gabriel Celayaz? Bada gizon zintzo eta xehe bat izan zela, hots, tontoa, artikulu egileen konplexitateak usaindu ere egin ez zituen gizona. Batez ere, hori azpimarratu nahi izaten da: bizirik gelditu diren kazetari eta abar horiek, konplexuak direla, argiak, eta abar eta abar.

Alde batera, beraz, herri adjetiboaren erabilera erromantikoa diskriminatzailea da. Bestera, berriz, hutsune baterantz seinalatzen du. Izan ere, non dago gaurko herri xehea? Hemeretzigarren mendeko erromantikoak ilustraziorik gabeko nekazari jendeari buruz aritu izan ziren, baina gaurko egunean bizitzera, nora jo beharko lukete? Ez dut uste Herder eta gainerakoak inora joango lirakeenik...

“Azkenez, badaukat ezagutzen ez dudan jendea agurtzeko eskubidea”, dio Apollinaire-ren poema batek, eta nik ere, egindako zehaztapan guztien ondoren, antzeko zeozer deklaratu dezaket, azkenez badaukadala ezagutzen ez dudan gai bati buruz aritzeko eskubidea. Eta eskubide hori, nik uste, herri-literaturari beti izan diodan maitasunak ematen dit aurren aurrena, eta nire idazle esperientziak gero.

Gaia, hain zuzen ere, oso bihurria eta hari askotakoa iruditzen zait, ni bezalako amateur batek nekez ezagutu lezakeena. Erretena, esan dut; ibaia, esan dut; orain, berriz, erreten horretako ur tantoak ibaian nola barreiatzen diren esan beharko nuke. Beraz, beste modurik ez daukat, ezdakidaka hastera nihoa.

Nik ez dakit ondo, baina herri-literatura aintzat hartu duten idazleak asko izan direla uste dut. Hor daukagu, esate baterako, Albert Camus; Camusek, bere teatro obra baterako —*Le malentendu*—, bai Italian eta bai Euskal Herrian jaso dagoen herri-leienda bat erabili zuen. Bide batez airtortuta, leienda hori, ostatua zeukaten ama-alaba batzuen hilketak kontatzen dituen, irratiz zabaldua izan da orain ez dela asko, *Antzoki iluna* izeneko saioan. Izan ere, nik neronek entzundako leienda zen, Zeanuriko andre bati entzun nion Antonio Cid-ekin Arabatik nenbilela, eta tentazioan erori nintzen...

Eta, Camus bezala —inolako ordenarik ez duen zerrenda eginez—, hor daukagu Goethe eta Hoffmañ, *Fausto* eta *Hondarraren gizona* idazteko orduan mundu guztian zabalduko istorioez baliatu zirenak (Walter Benjaminek idatzi zuenez, Faustoren zorigaitza festetako barraketan-eta kontatzen zen; *Hondarraren gizona*, berriz, Sacamantecas edo Gantzaleak

Alemanian hartzen duen izena da). Eta, alemaneraren eremutik atera gabe, gaurko idazle bat ere ekar dezakegu zerrendara, Peter Handke, hain zuzen ere, zeren berea baita *Desiratzeak zerbeitetarako balio zuen garaietan* izeneko liburua, eta izen hori Grimm anaiek jasotako ipuin baten hasiera ere bai baita...

Nor gehiago zerrenda honetan? —ba, asko pentsatu gabe, Paul Bowles, eta ez bakarrik tradizio magrebiarrari jarraitu izan diolako bere zenbait ipuinetan (*Baratza* deitutakoan, kasu), baita Marokkoko herri-narratzaile baten kontuak argitara bidean jarri zituelako ere. Eta Bowlesen ondoan, Blaise Cendrars, Afrikan izan eta *Ume txurientzako ipuin beltzak* liburua idatzi zuen poeta haundia; eta Bowles eta Cendrars-ekin batera, Isaac B. Singer, yiddish tradizioaren jarraitzaile onena-edo; eta Italo Calvino, herri-ipuinen zale deklaratu, bai hitzez eta bai obraz; eta Winston Auden poeta ingelesa, *nursery rhyme* edo ume kanten biltzaile; eta Oscar Wilde, ipuin maitagarrien itxurako narrazioen egile; eta Jean Cocteau, *La Belle et la bête* pelikularen autore; eta Eça de Queiroz, mandarin txinoaren istorio zaharra erabili zuen nobelista eta abar, eta abar.

Nik ez dakit ondo, baina hala iruditzen zait, herri-literatura aintzat hartu duten idazleak, asko ezezik, era guztitakoak izan direla: Hoffman bezalako erromantikoak, eta Goethe bezalako klasikoak; Camus bezalako esistentzialistak, eta Cendrars edo Cocteau bezalako abangoardistak; Oscar Wilde bezalako dekadenteak eta Auden bezalako konprometituek; Eça de Queiroz bezalako naturalistak eta Calvino bezalako alegorikoak-edo... jakina, egon liteke guztien artean batasun sakonago bat, abangoardia eta antzeko terminoek jasotzen ez dutena, eta askotan, hain zuzen ere, inpresio hori izan dut, badagoela literatur mugimenduen deskribaketek sekula jasotzen ez duten zerbait, eta zerbait hori idazle-kateak direla, idazle-kateak edo idazle-sareak. Idazle sare edo katea horietako batek, esate baterako, 300 idazle bilduko lituzke, garai eta leku desberdinetakoak, eta arrazoia, denak sare horretan egoteko arrazoia, alegia, beraien arteko afinitatea litzateke, gustu edo sentsibilitate mota bat.

Gogoratzen zait, honi buruz, zer poza hartu nuen behin, Parisera joan eta Tutuolaren liburu batek Raymond Queneau-ren hitzaurrea zera-mala ikustean. Izan ere, hantxe neukan afinitate proba: Queneau-k zale-tasuna erakusten zuen Tutuolarekiko, eta zale-tasun hori oso ezaguna egiten zitzaidan, zeren —*Nere bizitza fantasmien sasia*n irakurri nuenetik—, oso gustukoa baitut idazle afrikarra. Beste modu batera esanda, eta balio literarioaren kontuak alde batera utziz, Queneau, Tutuola eta hirurok sare berdinekoak izan gaitzkeela adierazten zidan hitzaurreak.

Ba ote da holako sarerik, holako idazle elkarte inefablerik? Nik baiezeko irudipena daukat, eta, gainera, sare asko egongo direnik ere ez

zait iruditzen. Lau edo bost sare desberdin, lau edo bost idazle mota, eta hortik aurrera salbuespenak. Eta herri-literaturari buruzko zaletasuna agian erabakiorra izango da —beste hainbat fobia eta filiekin batera— idazleak sare batean edo bestean kokatzeko. Baina ez nadin aurrerago joan. Kontu guzti horiek batere ziurtasunik gabekoak dira, eta hobe lehengoa aitortzen badut: ez dakit.

Begiak jaitsi ditzagun, orain. Tarte aski luzea daramagu munduari begira, ibai haundiaren uretan idazle eredu batzuk bereizteko lanean, eta komeni da apur bat bildu eta arreta gure inguruan jar dezagun: euskal idazleak herri-literaturarekin duen harremanari begiratu bat eman diezaiogun. Modu honetan egingo nuke nik galdera: Euskal Herria bezalako eremu ttiki eta jaioberrietan, haundia al da ahozko tradizioaren garrantzia? Beste eremu literarioetan duena baino haundiagoa, oro har?

Nire iritzirako, erantzuna, lehen ezdakidaka bezala, baibainaka eman behar da orain. Eta baibainaka hasiz, baietz esan behar da aurrena, euskal idazleok maiz edan dugula herri-literaturaren erretenetik; oro har, idazle frantziar edo britaniar batek baino gehiago. Zergatik? —ba, labur esatearren, euskal kulturaren egoerak horretara bultzatzen zuelako.

Begiak itxi, eta nire lehen pauso literarioetaz gogoratzen naiz. Neure burua ikusten dut Bilboko auzo batean, kafea hartzen ari naiz *Atxa* izeneko bar batean, eta Gabriel Arestik bidali berri didan gutuna daukat txaketaren barne patrikan. Haren letra txingurri eta erregularrarekin, nire *Borobila eta Puntua* irakurri berria duela esaten dit Arestik, eta asko gustatu zaiola, seguruenik ere eskritore bat izango naizela, baina titulua gaizki dagoela oso, Zerkulua eta Puntua izan behar duela, eta ia garbizalea al naizen, garbizalea banaiz jai daukadala, eta irakurri egin beharra daukadala euskaraz, batez ere klasikoak, Leizarraga, Axular eta gainerakoak beharbada aspergarriak egingo zaizkidala, baina nahitaezkoak ditudala euskal eskritore izatera iristeko.

1971garrena izango zen urte hura, eta, Arestiren gutun hark piztuta, euskal liburu edo irakurgai haien bilatzeari ekin nion. Baina, non zeuden ba, liburu haiek? Ia inon ez, kosta egiten zen bakar bat aurkitzea. Bakarrik Zazpi Kaleetako liburudenda batean aurki zitezkeen, eta han ere gutxi. Argitaraturik eta nahiko eskura zegoen klasiko bakarra Axular izango zen, Villasanteren edizio elebidunean. Eta Lizardiren *Bihotz begietan* ere aurkitzen zen azkenez. Modernoen artean, Lur argitaletxeak ateratako nobela edota saio ttiki batzuk egoten ziren apaletan...

Urritasun hura, gainera, are eta urriagoa egiten zen irakurtzerakoan, zeren, Arestik aurreratu bezala, liburu gehienak aspergarriak egiten baitzitzizkidan; eta ulertu ere, artean ia alfabetatu gabea nintzelarik, erdizka bakarrik ulertzen nituen. Egoera hartan, herri-literatura irtenbide polita

zen, Dick Turpinen klaraboia. Alde batera, istorio edo bertso irakurterrezagoak ziren, eta bestera, lan haundirik gabe lor zitezkeen Barandiaran, Azkue edo Aita Zavalaren liburuak.

Ordea, ba zeuden herri-litaraturara bultzatzen ninduten arrazoi sako-nagoak; ninduten eta gintuzten, noski, zeren belaunaldi kontua ere bai baitzen. Ostera begiak itxi, eta oroimenak Burladako monastegi batera eramaten nau. Eta hantxe ikusten dut neure 15 urtetako burua Ejerzizio Espiritualak egiten eta apaizak utzi digun zinta entzuten, eta zintatik *Iturengo arotza Erramun Joakin* dioen kanta bat ernetzen da, eta denok harrituta gaude, ez genekien euskaraz kanta zitekeenik, ez genekien zer zen kanta zaharren istorio hura, ez genekien ezer. Handik aurrera, apurka-apurka eta liburutto gorri eta sekretu batzuen laguntzaz, konprenituz joaten gara: Euskal Herria, Herri Ukatua da; kendu egin nahi zaigu gure hizkuntza, gure memoria, gure nortasuna. Eta non aurkitu faltan bilatzen genituen hizkuntza, memoria eta nortasun haiek? —ba, aukera haundirik ere ez, eta herri-literaturara jo behar Schiller eta bere lagun erromantiko-oen onespenerekin. “Egia sakonagoak aurkitzen ditut herriaren amandre ipuinetan zientziaren orrietan baino”, idazten zuen Schillerrek eta guk —Burladan Iturengo kantarekin harritutakoak eta beste antzeko batzuk—, baietz egiten genuen buruaz. Silogismoa zuzena zen: herri-literatura euskaldun ukatuok geneukan ia gauza bakarra zen; Schillerrek balio haundia ematen zion gure gauza bakar horri; beraz, biba herri-literatura, biba gu eta biba Schiller. Eta silogismo horretatik gure bertso ikasi beharra eta, beste bidaia batzuen artean, gure Zuberuara joan beharra.

Begiak itxi gabe ere, jarri pentsatzen eta segituan etortzen zaizkit garai hartan ikasitakoak. Esate baterako, Arestik argitaratu zen Txirritaren bertso hura: “Etxe maiorazkoa nintzen tokamentuz, baldin serbitu banu aita pulamentuz. Nere bizimodua beti dabil kantuz, despatxatuko naute, ez banabil kontuz”. Eta Indautxoko ostatu batean bertako ugazaba andreari ikasi nion Enbeitarena: “Euskotarrak eleizen arerio jarri direla esan dabe askok eta sarri. Baina zer egin dabe eleizaren kaltez, egiari jarraitu besterikan batez”. Eta Deustuko apopilo etxe batean, lagun batek erosi berria zuen magnetofonia probatzen ari ginela, auzoko andre karamelu-saltzaileak kantatu zidan sehaska kanta hura, niretzat hain garrantzi haundikoa: “Obabatxue, Obabatxue, obabatxue beilegi, zein honek aite diruri. Ikisiko dau yantzan ondotxu, aitegana emon baledi... Joxe Manuel, Joxe Manuel —hau bere semea zen—, Joxe Manuel doien orduen, zaldi urdinan gaiñean, beste hainbeste mile gehixago, yoango dira atzean”.

Nire iritzirako, Txirrita zen gure belaunaldiko jendearen gustu eta ideietara ongienik egokitzen zen herri-poeta. Izan ere —hala pentsatzen genuen guk orduan—, Txirritak aurre egiten zien Euskal Herriak zituen bi arazo nagusiei: arazo nazionalari eta arazo sozialari, hain zuen. Nola? —ba, honoko bi bertsookin, adibidez.

Lehenengoa, arazo nazionala zuzen deklaratzeko zuena: “Kolka txararen azpian dauden txito urrikgarriak, hamarretatik bost hiltzen dira, beste bostak elbarriak. Indar gutxiko gorputzak eta suspirioak larriak; pisti gaiztoen ikaraz beti, gora begira jarriak: kastigu honen menpean bizi gera gaur euskal herriak”.

Bigarrena, arazo soziala salatzen zuena: “Itxasoan zer gertatzen den ez al dezute ikusi, sardin berria eta antxua, izurdiaren ihesi. Azpian ezin agoantatuta, kanpora irten arazi; han ere arrantzaleak pronto, bere sare eta guzi: anima salbo jende pobrea, gaur holaxe gera bizi”.

Badira hogeitun urte ikasi nituenetik, eta oraindik buruz dakizkit. Eta ez dut esaten hau nire memoria ona goratzeagatik —horregatik bakarrik ez behintzat—, baizik eta herri-literaturak gure formazioan izan zuen eraginarekin probatzen.

Guztiarekin, herri-literaturaren aldeko mugimendua hartan gelditu izan balitz, hots, garai eta egoera jakin bati lotutako fenomeno bezala, zenbait jende gazteren premia ideologiko eta sentimentalaren erantzule huts bezala, ez ziratekeen bere ondorioak oso urrutira joan izango. Lehen amodioekin gehienetan gertatzen den bezala, bere hamalauk lauean gelditu izango ziren, eta lau horiek ere literatura serioetik aparte. Azken batean, guri hain ederrak iruditzen zitzaizkigun bertso eta ipuin asko, hain ederrak ere ez ziren; eta Schillerrek baieztatzen zuen hura ere, amandre ipuinen egiarena, nahiko dudakoa zen, zeren Pascalek zioen bezala —eta ondo zioela dirudi—, egia esfera bat da, eta bere zentroa ez dago inon; eta are eta duda gehiagokoa zen, oraindik, bai garai hartako eta bai oraingo askoren buruan kabia egindako ideia bat: euskal arimarena, alegia; herri-literaturak gure herriaren arima edo esentzia adierazten zuelakoa. Izan ere, Euskal Herriak —Pascalen esferak bezala—, ez du zentrorik, hemen ere, beste lekuetan bezala, zenbat buru, hainbat izpiritu. Gainera, literatura edo artearen arloan esan daiteke hau gurea da, baina sekula ez hau gurea bakarrik da. Programan ikusten dudanez, Martin Etxeberririk hitzaldi bat emana du: garbi geratuko zen, beraz, ipuin harrigarrien unibertsaltasuna. Nire aldetik —ideia hau ahalik eta gehiena azpimarratu beharra dagoelakoan— *Trésor de la poésie populaire* bildumatik hartutako esenplu bat aipatuko dut pasaeran, honoko randonné hau: “Mon merle a perdu son bec - Comment pourra-t-il chanter? - Mon merle - Comment pourra-t-il chanter? - Mon merle a perdu sa langue, sa langue, son bec - Comment pourra-t-il chanter? Mon merle, Comment pourra-t-il chanter?...” eta abar eta abar. Bistakoa denez, euskaldunon *Xoxoak galdu du mokoa* delakoaren bikia da kanta frantziar hau. Eta bide batez esanda: zergatik ibili bereizgarrien bila daukagun hizkuntza edukita? Ez ote da ba, nahikoa hizkuntzarekin?

Beraz, eta arestian arrazoinatutakoa laburtuz, herri-literaturaren aldeko mugimenduan teoria kaxkar asko zebilen gure belaunaldikoen forma-

zio garai hartan, eta horrek etorkizun ahula auguratzen zion. Baina —eta hau da baibainakaren bainarik garrantzitsuena—, uztarpen edo batuketa bitxiaren garaia ere ba zen hura, eta herri-literatura abangoardiako teoria eta praktikekin uztartu zen. Begiak hirugarren aldiz itxi eta oroimenak Bilboko Santiago Apostol ikastetxera eramaten nau, eta neure burua eszenario bati begira ikusten dut, eta eszenarioan Laboa, Hartzabal, Lertxundi, Irigaray, Lete eta beste batzuk ingurutxo bat dantzatzen ari dira mikrofonoz beteta dagoen taulatuan. Norbaitek esaten dit jende hura *Ez dok amairu* taldea dela, eta daukaten izen arrazoa Oteiza eskultoreak jarritakoa dela, Azkuek bildutako erdi kanta batetik hartutako izena, hain zuzen ere, eta kartela Zumetak egin diela...

Ez naiz luzatuko jende guztiarentzat bistakoak diren xehetasunak aletzen, are eta gutxiago protagonistek lehengoan dirautelarik, Laboa gernikak eta bentaranoak nahasten ari dela, eta Hartzabal bere errizitalekin, Oteiza bere proiektuekin, Lete poemekin, Zumeta behin ere baino gogorrago; zerbait gaineratzekotan, joera hark zuen zabaltasuna gaineratuko nuke. Zeren hala baitzen, oso joera zabaldua. Txillidak ere bere iturrietako bat herri-errementaritzza zela aitortzen zuen, eta euskaraz bataiatzen zituen bere obra batzuk. Ruiz Balerdi Andoaingo eskoletara joaten zen umeei pintatzen erakustera, eta euskararen soinua euskaldunek baino hobeto imitatzen zuen, eta hori euskararik jakin gabe. Bilbao aldean, Gabriel Arestik *Gabonetako ikuskizunaren* modernotasuna probatzen zuen Bertold Brechten teoriekin; guk geuk ere, gazteagoak, Azkue-tik Tristan Tzarara, eta Tristan Tzaratik Azkuera ibiltzen ginen konposturarik galdu gabe... berriro ezdakidaka hasiz, ez dakit, agian joera hura beste joera zabalago baten ondorioa besterik ez zen, iraultza eta euskaltasuna politikoki lotu nahi zituenarena. Edozein modutara, zeinnahi arrazoiengatik gertatu zela ere, abangoardiarekin nahasteak eman zion bizitza herri-literaturari, beharrezkoa bihurtu zuen, esannahi berriak hartzeko gai bihurtu zuen.

Altxa ditzadan orain gure hurbileko kontuetan jarrita edukitako begiak, eta eman diezaiodan begiratu bat, hitzaldi honi azken puntua jarri baino lehen, literaturaren ibai bizkor, zabal eta arriskutsuari: jadanik izkutatu dira erretenak, eta korronteak dagokien moduan dihoaz, elkarrekin nahasturik, bere konplexitate trinkoan.

Denbora apur bat uraren joanari begira, eta zera etortzen zait burura: liburu bakoitza kasu bat dela, autore serio bakoitza ere bai, eta orain arte adierazi ditudan jeneraltasunak, nahiz ondo oinarrituak egon, ezin dutela berez kasu horietako bakar bat esplikatuz. Izan ere, idazle serio guztiak xistima bat osatuz joaten dira —bere sentsibilitate, talentu eta esperientziaren arabera—, eta xistima horrek, denborarekin, begi bat ematen die, eta begi horrek ikusi egiten du... Zer ikusten duen? Ba, zerbait: zerako zeraren zera, Toribio Alzagaren estiloan esateko.

Herri-literaturaz ari garela, eta hizlaria neu naizela *Pello Errotaren bizitza* liburuan ikusitako zenbait gauza esan beharko nituzke. Hiltzera doan neska gazteak “ardoa eranda moskortzen naiz” kantatzen duen pasartearen dramatikotasuna, esate baterako. Edo hil ondorenean “barruan daraman sugea ateratzeko” eskatzen duen gizonaren kasua, niretzat hain esanguratsua. Baina neure idazle xistimaz hitzegiteko, hitzaldiaren hasieran egon beharko genuke, eta ez bukaeran. Izan ere, hitzaldi bukaeran gaude, edo, zehatzago, hitzaldi hau bukatu egin da.